

EUSKADIREN AHOTSA. CON VOZ PROPIA.



MARIBEL VAQUERO Donostia, 2023ko uztailaren 19an

Balioa izango duen diskurtso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.
El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto.

Arratsalde on guztioi!

Politika egiteko modu asko dago. Kanpaina honetan zatarrenak ere ezagutu ditugu; irainak eta gezurrak izan dira, lotsa gutxirekin, non nahi.

Ezker Abertzaleak, gu faxista deitzen hasi zuen kanpaina eta hilabete baino gehiago pasa du, existitzen ez den itun bati buruz hitz egiten.

Gezurretan aritzea modan jarri da; oso merke izaten ari da, gainera, azkenaldi honetan. Bai Madrilan, baita hemen ere. Pentsioen gaiarekin batez ere. Hor dabil Feijóo, zer esan ez dakiela, gezurra gezurraren gainean.

Hemen ere, Euskadin, ez dabilta finago.

Pentsioen igoera bermatzeko EAJk 2017 urte amaieran lortutako aurrekontu akordioak urak nahasi ditu eta aztoratuta dabilta beste alderdietako hautagaiak. Baina gustatu ala ez, 2018ko aurrekontuetan diru partida hori sartu zuten guri esker, Euzko Alderdi Jeltzaleari esker. Eta lorpen hori ezin da ukatu, ezta gezurrekin izkutatu ere! Hemerotekara jotzea besterik ez dago eta.

Podemos zein sozialistei ahaztu egin zaie, nonbait; beraien ustez, Estatuko gobernu progresistena; osatzen duten bi alderdiei ahaztu egin zaie, gure botoa izan dela izan bidelagunik leialena, exigentea bai, baina leiala ere bai; inbestidurarako batetik, baina baita eskubideetan aurrerapauso izan diren lege eta proiektu guztietan ere. Orain kanpainen ahaztu egiten zaie!

Uztailaren 24an zenbakiek emango balute ate joka izango genituzke berriz ere!

Baina gu gurera, errespetuz, Euskadiren alde!

Gu gurera, egiarekin; demagogia eta populismoari aurre egiten. Errespetuz jokutzen. Politika, herri eta herritarren zerbitzuaren alde lan egiteko dela ulertzen dugulako.

Gure programa eskutan, Gipuzkoa eta Euskadirako ditugun proposamenak azaltzen aritu gara Gipuzkoan zehar, herriz herri. Euskadiren ahotsa zer den eta zertarako izan nahi dugun azaltzen.

Egin dugunaren berri emanez eta egin nahi duguna azalduz.

EUSKADIREN AHOTSA. Zertarako?

- Autogobernua defendatzeko. Bakarrik sentitu gara lan horretan. Batzuetan laguntza baino, traba izan dugulako; alderdi soberanista batzuk sokaren beste aldean tiraka jarri direlako, gure instituzioen erabakitzeko ahalmenaren kontrako legeak onartzen, eta estatuko alderdien bidelagun izan dira.

“Mucho ayuda el que poco estorba”. Hori ikusi dugu, EH Bilduri esan nahi diogu: laguntzeko ez bada, ez dadila jarri Espainiako alderdi politikoekin sokaren beste aldean euskal autogobernuaren kontra.

EUSKADIREN AHOTSA. Zertarako? (errepikatu egingo nuke)

- Inboluzio demokratikoari aurre egiteko, orain arte bezala eskubide zibil eta politikoaren defentsa lideratzeko. Lehen lerroan eskuin muturrari aurre egiteko, berdintasuna, justizia soziala eta diskriminazio eza lortzeko, eta euskara eta euskal identitatearen defentsan! Eskubideetan atzerapausorik ez!

- Programa badugu; Klima aldaketaren kontrako proposamen zehatzekin, ez eslogan eta edukirik gabeko hitz potoloekin. Proposamenekin, proposamen zehatzekin!.

- Proposamenak ere enpleguan, azpiegituretan, lehen sektore eta enpresan, autonomo eta industriarentzat.

Badugu programa, badugu taldea, badugu indarra zuek guztion indarra!

Euzko Alderdi Jeltzaleak bi jomuga ditu:

- Izaera abertzalea
- Izaera demokrata

Bi ildo horietatik abiatzen da gure politika, eta biak uztartuta gure herri eta nazio ereduak:

- Gure aberria, Euskadi, guztientzat herria
- Gure gizartea; kohesionatua, inklusiboa eta sozialki garatua. Eta hortik abiatuta egiten ditugu politika publikoak.

Injustiziarri aurre egiteko erantzukizunari bizkarrik eman gabe, inor atzean utzi gabe, pertsona erdigunean jarriz; horrek egin gaitu indartsu!

Guzti honetarako behar dugu talde sendo bat, euskal herritarrak aske eta seguru sentitu daitezen. Eskubide horien, guztien defentsan EAJ lehen lerroan izango da! Euskadiren ahotsa izango gara! Uztailaren 23an botoa ematera! Euskadiren ahotsa izango den taldearen alde! Euzko Alderdi Jeltzalearen alde! Gora Euskadi Askatuta!!